

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

CHNko digestio-espezialistek bi sari jaso dituzte espezialitateko Kongresu Nazionalen

Ana Ciaurriz eta Eduardo Albenizen azterketak heste- eta endoskopia-hanturazko gaixotasunari buruzko ahozko komunikazio onenak kalifikatu dituzte

Miércoles, 29 de junio de 2011

Nafarroako Ospitale Guneko digestio-espezialistako mediku Ana Ciaurriz eta Eduardo Albenizek sariak jaso dituzte Sevillan, ekainaren 11tik 14ra, egin den Digestio Aparatuaren Espainiako Elkartearen Urteroko LXX. Kongresuan.

Hurrenez hurren, heste- eta endoskopia-hanturazko gaixotasunari buruzko ahozko komunikazio hobereenen sariak dira. Bi espezialistek CHNko B zentroan burutzen dute beren laguntza-jarduera (lehengo Virgen del Camino ospitalea), eta saritutako azterketak osasun-zentro horretako Digestioko zerbitzuko talde guztiarekin lankidetzan egin dituzte.

Ana Ciaurrizek egindako lanaren izena "Erradiazio ionizagarriaren kuantifikazioa Crohn-eko gaitza duten gaixoetan" da, eta heste-hanturazko gaixotasunari buruzko ahozko komunikazio hobereenen saria jaso du. Beren gaixotasunaren bilakaeran Crohn-eko gaitza duten gaixoen egindako diagnostikoko proben ondorioz jasotako erradiazioa kuantifikatzea du xede (TACa batik bat eta azterketa barizatuak).

Azterketak ondorioztatzen duenez, komenigarria litzateke gaixo bakoitzak jasotzen duen erradiazio-dosia erregistratzea arriskuko dosi metatuak ekiditeko eta diagnostikoko aurreikuspen handiko irudi-teknikak egitea baloratzeko (ekografia eta entero-erresonantzia), erradiazioaren eragozpenik gabe.

Eduardo Albenizek, berriz, "Erresezio endoskopiko mukosaren eraginkortasuna eta segurtasuna" izeneko komunikazioa aurkeztu zuen, eta endoskopia-alorreko ahozko komunikazio onenaren saria jaso zuen. Bertan azaltzen da erresezio endoskopiko mukosa (REM), onartzen den teknika dela digestio-hodiko leku ezberdinetako lesio neoplasiko azalekoen, onberen eta gaiztoen tratamenduan. Digestioko tumore batzuk sendatzeko tratamendu bat da hasierako estadioetan hautematen direnean, ohiko



Ana Ciaurriz (ezk.) eta Eduardo Albeniz (esk.), B Digestio Zerbitzuko kideen alboan.

kirurgia-tratamenduaren alternatiba bat da eta segurtasun-profil ona aurkezten du.

Azterketak `B´digestioko zerbitzuaren emaitza onak erakusten ditu patologia horien tratamenduan, Barrett-eko esofagoaren gainean garatzen diren azaleko neoplasiak, urdail eta duodenokoak eta kolonekoak, esate baterako.